

## politika

### ■ CESIDen agiriak:

Iruinek errekurritu egin du paperak ez desklasifikatzeko erabakia

CESIDeko agiriak ez desklasifikatzeko Espainiako Gobernuak hartutako erabakia errekurritu du Iñigo Iruin abokatuak Auzitegi Gorenean, babes juridikorako oinarritzko eskubidea bortxatu dela argudiatuz. Gobernuak estatu terrorismoaren zigorgabetasuna «lotsagabeki» erakutsi duela uste du Iruinek. → 5

### ■ GALen auzia:

Galindok uko egin dio Oñaederraren kasuan Garzon epailearen aurrean deklaratzeari → 6

## nazioartea

### ■ Kurdistan:

Milaka kurduk ihes egin dute Sulaimaniatik, Masud Barzaniren gerrillaren beldur → 13

### ■ Belgika:

Pederasta sarearen eta ministro ohiaren heriotzaren artean badagoela lotura salatu dute egunkariak → 14

## kirola

### ■ Vuelta:

Indurain eta Once dira faborito argiak atzo Jalabertek irabazitako estaparen ostean → 15

## kultura

### ■ Antzerkia:

Tarregako feria antzezlanaren erakusleho erraldoia izan da aurten ere → 20

## Hondarribiko istiluak

# Alardean jipoitu dituzten emakumeek salaketa jarriko dute auzitegian

«Emakumeek iraindu eta gizonak jo egin gaituzte», adierazi dute eraso jaso dutenek

■ Hondarribiko Alardean igandean jipoitu zituzten emakumeek salaketa partikularrak aurkeztuko dituzte auzitegietan erasotzaileen aurka, atzo iragarri zuten. Neurri horretaz gain, Udalaren aurka talde bezala ere salaketa jartzekotan dira. «Ahal ditugun neurri guztiak hartuko ditugu Udalaren aurka,

bai juridikoki bai erakunde mailan», adierazi zuten Bidasaldeko Emakumeak taldeko bozeramaileek. Eusko Jauritzako Emakunde erakundeak iragan astean iragarri zuen Alardean emakumeen aurkako erasorik gertatzen bazen salaketak jartzeko asesoria juridikoa emango zietela. «Emakumeek iraindu

eta gizonak jo egin gaituzte», esan zuten atzo Bidasaldeko Emakumeak taldekoek. Igandeko istiluek adierazpen publiko asko eragin zuten atzo ere. Istiluen lekuko izan zen Xabier Elorriaga aktoreak EGUNKARIARI adierazitakoaren arabera, «hamar urte barru batzuek ukatu egingo dute igandekoa». → 2 eta 9

ANTONIO ALONSO



## Setienen aurrean kexu

■ JOSE MARIA SETIENI atzo Arantzazuko santutegian meza eman ondoren kaleratu zenean Amnistiaren Aldeko Batzordeen jarraitzaileak hurbildu zitzaizkion. Elizak euskal preso politikoenganako duen jarreragatik kexu azaldu zitzaizkion gotzainari. Hark gogorarazi zuen gaur arratsaldean Senideekin biltzekoa dela. Hogei presok, bestalde, atzo gauerdian gose greba mugagabea

hasi zuten Frantziako eta Espainiako kartzeletan. Horren bidez dagozkien eskubideak errespetatu ditzaten eta Euskal Herrira ekar ditzaten lortu nahi dute. Hori azaltzeko Espetxe Erakundeetako Zuzendaritza Nagusiari idatzi bat bidali diote. Espainiako Barne ministroak, Jaime Mayor Orejak, bestalde, euskal preso politikoak biltzea «burugabekeria» dela adierazi zuen atzo bertan. → 4

## Kortak utzi egin nahi du aurten arraun mundua

■ Azken urteetan gaizki pasatu duela eta jarraitzeko motibazioa falta duela dio → 18